



Intxaurreondo

Alkateari kirolgunea eskatu diote

Hego Intxaurreondoko auzo elkarteak gutuna bidali dio Odon Elorza alkateari kirolgunea egiteko proiektua azter dezan eskatzeko. Elkartek otsailean aurkeztu zuten egitasmoa. Dena den, orain arte ez du erantzunik jaso.

Hego Intxaurreondoko auzo elkarteak lagunek kirolgunea egiteko proiektuari hel diezaion eskatu diote aste honetan Odon Elorza alkateari, gutun bidez. Gutunean, Hego Intxaurreondok duen azpiegitura faltaz kezka agertu dute auzotarrek -zehatz mehatz, bertako gazteek kirola

egiteko leku egokirik ez dutela salatu dute- eta, ildo honetatik, Otxoki pasealekuaren eta Aljer ibilbidearen artean kirolgunea jartzeko proposamena gogorarazi diote alkateari.

Gogora dezagun Otxoki pasealekuaren eta Aljer ibilbidearen artean 13.000 metro karratu daudela; gaur egun, futbol zelaia besterik ez dago bertan eta ez dago ez hesirik, ezta aldagelarik ere. Garai batean auzoko gazteek ikastola erabiltzen zuten kirola egite-

ko, baina hala ere, alde zurretik baimena eskatu behar zuten Hezkuntza Sailean. Horregatik, auzo elkarteak kirolgunea egitea nahi du eta aipatutako tokia egokia izan daitekeela uste du.

Igerilekua

Esan bezala, proiektu bat ere egina du elkarteak. Proposamen hau iazko Elkartearen Astean landu zuten, eta bertan kirolgunea instalatuko igerilekua, saskibaloia kantzak, al-

dagelak eta abar izan zitezakeela aurreikusi zuten. Aurtengo otsailean auzotarrek egitasmoa aurkeztu zioten Odon Elorzari eta, elkartearen arabera, alkateak proiektua aztertze konpromisoa hartu zuen. Dena dela, auzo elkarteak dioenez, Elorzak ez die orain arte erantzunik eman.

Orduz geroztik bost hilabete joan dira, eta tarte honetan aurrerapausorik ez dela izan ikusita, elkarteak lagunek bilerara egin dute aste honetan eta gutuna igorri diote alkateari.



Monseko tenis pistak itxita

Abuztuaren 4an, astelehena, Mons udal kiroldegiko tenis eta padel pistak itxi egingo dira estaltze-lanei ekiteko. Guztira, bi hilabetez egongo dira itxita. Urria aldera, auzotarrek estaltako pistetan jokatu ahal izango dute tenisean eta padelean.

Bost hilabetetan auzotarrek ez dute erantzunik jaso

IRUTXULOK banatzaileak behar ditu

IRUTXULOn banatzaileak behar ditugu, ostiraletan aldizkaria banatzeko. Prest zaudetenok honako telefono honetara deitu besterik ez duzue: **943458408**.

IRUTXULOK laguntzaileak behar ditu

Martutenen, Aieten eta Amara Berrin berriemaile lanak egiteko. Kazetaritza ikasten ari bazara, egina baduzu edo idaztea gogoko baduzu, dei ezazu ondoko telefono zenbakira: **943467236.**